Mondragon Unibertsitatea

Biblioteka

# Konpetentzia Digitalak

## Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

2. Komunikazioa eta lankidetza

2.5. Identitate digitalaren kudeaketa:

# 2.5.2. Identitate digitalaren kudeaketa

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Komunikazioa eta lankidetza.
Identitate digitalaren kudeaketa

# Identitate digitalaren kudeaketa

CRUE REBIUN
Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



**Identitate digitala konfiguratzeko** erabiltzen diren erremintak identifikatzea.

**Identitate digitalaren agerikotasuna, ospea eta pribatutasuna** zer diren jakitea.

**Hori modu eraginkorrean kudeatzeko gomendioak** ezagutzea.

# AURKIBIDEA

- Identitate digitala konfiguratzeko erremintak
- Agerikotasuna
- Ospea
- Pribatutasuna
- Gehiago jakiteko...

# IDENTITATE DIGITALA KONFIGURATZEKO ERREMINTAK

Identitate digitala modu egokian konfiguratzeak esan nahi du sareko ikusgarritasuna, ospea eta pribatutasuna arrakastaz kudeatzea.

Pertsona batek identitate bat edo hainbat izan ditzake, eta, horiek konfiguratzeko, hainbat erreminta erabil ditzake, denak ere Interneten eskuragarriak.



# AGERIKOTASUNA

Pertsona batek sarean egiten dituen jarduerek zehazten dute agerikotasuna: argazkiak, bideoak, blogetan eta sare sozialetan argitaratutako mezuak edo iruzkinak, etab. Baina baita beste pertsona batzuek pertsona horretaz argitaratzen dituzten erreferentziek edo iruzkinek ere.

**Zure argitalpenen eraginak ekar dezake zure agerikotasuna handiagoa edo txikiagoa izatea.**

Mundu digitalean pertsona batek duen agerikotasuna honako hauen bidez neur daiteke: bisitari kopurua, kontaktu edo lagun kopurua, jarraitzaile kopurua, haren argitalpenak zenbat aldiz birbidali edo partekatu diren, edo haren argitalpenak lotzen dituzten orrialde kopurua.

# OSPEA

Ospe digitala pertsona, erakunde edo marka batek Interneten duen prestigioaren edo estimuaren isla da.

Sarean argitaratzen den guztiak ondorioak izan ditzake pertsona baten irudian eta ospean.

**Hiru faktore** dira erabakigarriak online ospeari dagokionez:

- Geuk sortutako ekintzak eta edukia.
- Beste batzuek geuri buruz sortu eta sarean eskuragarri jarritako edukia.
- Interneteko harreman sozialen eremuan sorturiko edukia: sare sozialetako iruzkinak, foroak, blogak, etab.

# PRIBATUTASUNA




***Pribatutasuna Interneten gure datu pertsonalak norekin, nola, noiz eta zer neurritan partekatzen ditugun erabakitzeko eskubidea da.***

HONAKO HAU GOMENDATZEN DIZUGU:

- Ongi aukeratu zer erreminta erabili nahi dituzun, egin nahi duzunaren eta erreminta horiek onartzen duten pribatutasun-mailaren arabera.
- Definitu zer informazio pertsonal egin nahi duzun publiko.
- Erabaki norekin partekatu nahi dituzun zure datu pertsonalak.

# GEHIAGO JAKITEKO...

Identitate digitalari eta haren kudeaketari buruzko artikulua: La gestión de la identidad digital: una nueva habilidad informacional y digital.

Identitate digitalari eta online ospeari buruzko gidaren 3. kapitulua.

Datu pertsonalen babesari buruzko legedia.

Mondragon Unibertsitatea

Biblioteka

## Zalantzarik baduzu, galdetu zure bibliotekan:

**Basque Culinary Center**
**Biblioteka**
Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea**
**Biblioteka**
Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteka.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**
**Biblioteka**
Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteka.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa**
**Biblioteka**
Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteka.mgep@mondragon.edu

"Icon made by Baianat from www.flaticon.com"